

LABOREN
PARTE HARTZEN
DUTEN BESTE
ARTISTAK

OTROS ARTISTAS
QUE PARTICIPAN
EN LABORE

LABORE BLOG



**AINARA LeGARDON &
JAIME DE LOS RIOS**
CAEMENTUM
MUSEUM CEMENTO REZOLA



EDUARDO HURTADO
AIPATU EZIN DENA
LO QUE NO SE PUEDE NOMBRAR
REAL 100 MUSEOA / MUSEO REAL 100

ELISE ANGELO



ZUHAR IRURETAGOIENA
ABSENTIA. (TRIANGULU GORRIA, LERRO URDINA)
ABSENTIA. (TRIANGULO ROJO, LINEA AZUL)
SAN TELMO MUSEOA / MUSEO SAN TELMO



EDU COMELLES
WAVES
AQUARIUM



IÑIGO SALABERRIA
KAIA
EL MUELLE
UNTZI MUSEOA / MUSEO NAVAL

LABORE


Donostia 2016k, Donostia Kulturak eta Donostiako Museo Sa-reak garaturiko programa da Labore. Hazitegiak kaiaren baitako proiektu honetan, diziplina anitzeko sei proiektu ezberdinek, *site specific* izaera bati erantzunez, berrinterpretazio edo elkarrizketa bat proposatzen dute museoaren bildumarekin, eraikinarekin, bisitariarekin, inguruarekin zein testuinguru sozialarekin. Programa pilotu honen bitartez, museoetan artista eta sortzaileen presentzia izatea bilatzen da, begirada sortzaileek euren espazio, funtzio eta harremanatze moduekiko interpretazio bat eskaini dezaten erraztuz.

Labore es un programa desarrollado por San Sebastián 2016, Donostia Kultura y la Red de Museos de San Sebastián. En esta iniciativa, que se enmarca en el muelle Hazitegiak, seis proyectos de diferentes disciplinas artísticas, con un carácter *site specific*, proponen una reinterpretación o diálogo con la colección del museo, su edificio, su público, su entorno o su contexto social. A través de este programa piloto, se persigue normalizar la presencia de los artistas en museos, facilitando que visiones creativas ofrezcan una opción de reinterpretación de sus espacios, funcionamientos, y modos de relacionarse.



donostiakultura.com

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



NEREA
DE DIEGO

BILDUMAREN
ESZENARATZEA
PUESTA EN ESCENA
DE LA COLECCIÓN



LABORE

EGONALDI ARTISTIKOAK
RESIDENCIAS ARTÍSTICAS

NEREA
DE DIEGO

Nerea Diego (Iruñea, 1974) artistaren sormenezko lanetan marrazkiak, argazkiak, eskulturak, bideoak, instalazioak zein interbentzioak daude. Arte Ederretako lizentziaduna da, eta Ikerketa eta Sormena Artean masterra (EHU) egina du. Arte-prestakuntza hainbat artistarekin osatu du, besteak beste: Miralda, Rogelio López Cuenca, Ion Munduate, Blanca Calvo, Mireya Masó, Bleda y Rosa, John Davies, Raúl Cárdenas edo Josep María Martín.

Erakusketa indibidualak egin ditu hainbat tokitan, hala nola Mexiko Hiriko Unibertsitate Iberoamerikarrean, Iruñeko Zitadelan edo Moises Pérez de Albéniz galerian eta Madrilgo May Moré galerian. Arte Garaikideko Huarte Zentroan ere izan ditu lanak ikusgai, *Carteles de empapelar* interbentzioa egin zuelarik 2007ko inauguraziorako. Horrez gain, azoka ugarian egon dira artista honen lanak: Arco, Art Madrid D'Foto (Donostia), Digital and Vide Art Fair (New York), Paris Foto edo FEMACO (Mexiko Hiria).

Nafarroako artista gazteentzako hainbat sari eskuratu ditu eta egonaldiak egin ditu hainbat hiritan: Beijing (Txina), Camac (Frantzia), Mexiko Hiria, Bregenz (Austria), CRIDAPalma eta Kordoba. Halaber, kultur hezkuntza eta kudeaketako lanak ere garatzen ditu. EHUko irakaslea izan da eta, gaur egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle atxikia da hezkuntza plastikoaren arloan.

El trabajo creativo de Nerea de Diego (Pamplona, 1974) se desarrolla entre el dibujo, la fotografía, la escultura, el vídeo, la instalación y la intervención. Es licenciada en Bellas Artes y tiene un máster en Investigación y Creación en Arte (UPV-EHU). Ha completado su formación con artistas como Antoni Miralda, Rogelio López Cuenca, Ion Munduate, Blanca Calvo, Mireya Masó, Bleda y Rosa, John Davies, Raúl Cárdenas o Josep María Martín.

Ha realizado exposiciones individuales en la Universidad Iberoamericana de México D.F, la Ciudadela de Pamplona, la Galería Moises Pérez de Albéniz de la capital navarra, y en la May Moré de Madrid. También ha expuesto en el Centro Huarte de Arte Contemporáneo, donde realizó la intervención "Carteles de empapelar" para su inauguración en 2007. Además, sus creaciones han estado presentes en ferias como Arco, Art Madrid, D'Foto en San Sebastián, Digital and Video Art Fair en Nueva York, Paris Foto, o FEMACO en México D.F.

Ha recibido varios premios para artistas jóvenes de Navarra, y ha residido en Beijing (China), Camac (Francia), México D.F., Bregenz (Austria), CRIDA Palma de Mallorca y Córdoba. Además, desarrolla trabajos de educación y gestión cultural. Ha sido profesora de la UPV-EHU y actualmente es profesora asociada de la UPNA en el área de educación plástica.

ELIZBARRUTIKO MUSEOA

MUSEO DIOCESANO

Elizbarrutiko Museoa bere historiaren funtsezko une batean dago. Hainbat urtez itxita egon ostean, egoitza berri batean irekiko ditu ateak berriro, hiriko eraikin ezagun batean zehazki, Santa Maria basilikan. Espazioa berritzearekin batera museoaren kontzeptua bera ere berritu nahi da, Elizbarrutiko Museoa kokaturik dagoen komunitatearekin lan egin nahi duen gaur egungo museo bihurtu dadin. Labore proiektua komunitatearekiko lan-ikuspegi horren barruan sartzen da, artista garaikideak ere komunitatearen parte baitira.

Eliza katolikoaren balioen topaketa, elkarrizketa eta hedapenerako espazio modura planteatzen da Elizbarrutiko Museoa. Elkarrizketaren ikuspegi hori bete-betean dator bat Nerea de Diegoren egonaldiarekin, artistak elkarrizketa planteatzen baitu bere irudi herriko eta museoaren bildumaren artean. Bildumen arteko elkarrizketa horrek irakurketa berria ematen dio pieza bakoitzari, baita honen ondoriozko lanari ere.

Espazioa berritzearekin batera museoaren kontzeptua bera ere berritu nahi da, Elizbarrutiko Museoa kokaturik dagoen komunitatearekin lan egin nahi duen gaur egungo museo bihurtu dadin

Esta renovación espacial va unida a una renovación conceptual, convirtiendo al Museo Diocesano en un espacio actual que trabaja con la comunidad.

El Museo Diocesano se encuentra en un momento clave de su historia. Tras varios años cerrado, el museo va a reabrir sus puertas en una nueva sede y en un edificio emblemático de la ciudad, la Basílica de Santa María. Esta renovación espacial va unida a una renovación conceptual, convirtiendo al Museo Diocesano en un espacio actual que trabaja con la comunidad. El proyecto Labore, se enmarca dentro de este enfoque de trabajo con la comunidad, ya que los artistas contemporáneos también forman parte de ella.

El Museo Diocesano se plantea como un espacio de encuentro, de diálogo y de difusión de los valores de la religión católica. Este planteamiento de diálogo entronca de lleno con la residencia de Nerea de Diego, ya que la artista plantea un diálogo entre su colección de piezas más populares con la colección del Museo. Esta conversación entre las colecciones establece una nueva lectura tanto de cada una de las piezas de las colecciones, como de la obra resultante.

BILDUMAREN ESZENARATZEA



PUESTA EN ESCENA DE LA COLECCIÓN

Bildumaren eszenaratzea proiektuak Nerea de Diegoren interes berezi batean du jatorria: Andre Mariaren herri-kultuko irudien eta figuren bilketan. Eguneroko errituen formekiko lilura horren ondorioz munduko toki ezberdinetako balio material txikiko birjinen ehunka figura, estampa eta irudiren bilduma osatu du artistak. Hain zuzen, bere bilduma eta Elizbarrutiko Museoko balio material, historiko eta artistiko aitortuko ondarea aurrez aurre jarri ditu artistak proiektu honetan, elkarrizketa horren ondorioz artelan berria sor zedin.

Artistaren egonaldian zehar Elizbarrutiko Museoa egoera berezian zegoen, noiz irekiko zain eta bildumaren zati bat zaharberritzeko prozesuan zituela. Honek baldintzatu egin du instalazioaren garapena, eta Nerea de Diegok proiektuari beste modu batera heldu behar izan dio; museoaren ondarearen argazkiekin zein hasiera batean erakusgai egongo ez zen bildumaren zati batekin lan egin du.

Prozesu horretan EHUko Arte Ederretako bi ikasleren laguntza ere izan du. Egonaldiaren baitan Matia Fundazioko Elizaran Zentroko erabiltzaileekin elkarrizketak izan ditu eta Parrokiako Cáritaseko Erdialdeko Amerikako hainbat emakumeren bisita ere izan du. Ama Birjinak tokian-tokian hartzen dituen presentzia eta garrantzia izan dutelarik hizpide. Era horretan, bere lana museoaren ingurunera gerturatu du eta Alde Zaharreko auzoen ohiturak eta kultuak ezagutu eta partekatu ditu.

Bere bilduma eta Elizbarrutiko Museoko balio material, historiko eta artistiko aitortuko ondarea aurrez aurre jarri ditu artistak proiektu honetan, elkarrizketa horren ondorioz artelan berria sor zedin

Puesta en escena de colección es un proyecto que parte de un interés particular de Nerea de Diego: la recolección de figuras e imágenes de popular del culto mariano. Esta fascinación por las formas que adoptan los rituales cotidianos, ha llevado a la artista a formar una colección de cientos de figuras, estampas e imágenes de vírgenes de poco valor material de diferentes partes del mundo. En este proyecto en particular la artista ha contrapuesto su colección con los fondos de reconocido valor material, histórico y artístico del Museo Diocesano, dejando que este diálogo diera pie a una nueva obra.

Las condiciones singulares del Museo Diocesano durante la residencia de la artista, en espera a su apertura y con parte de la colección aún en fase de restauración, ha condicionado el desarrollo de la instalación. La necesidad

de adaptarse a esta situación ha llevado a de Diego a abordar su proyecto de otra manera, trabajando con fotografías de los fondos del museo y parte de la colección que no iba a ser expuesta.

En este proceso ha contado con la ayuda dos estudiantes de Bellas Artes de la UPV/EHU. Durante su estancia ha mantenido conversaciones con los usuarios y usuarias del Centro Elizaran de Matia Fundazioa. También ha recibido la visita de mujeres de Cáritas Parroquial provenientes de Centroamérica, con las que ha intercambiado impresiones y visiones en torno a la presencia y el peso que adopta la figura de la Virgen en cada lugar. De este modo ha acercado su trabajo al entorno más cercano del museo y ha conocido y compartido las costumbres y cultos de los vecinos de la Parte Vieja.



La artista tenía el objetivo de contraponer su colección con los fondos de valor reconocido, material, histórica y artísticamente del Museo Diocesano, dejando que este diálogo diera pie a una nueva obra.